

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI ERREMONTEA

Barrenetxea finalerdian, seguru

Urrizaren aurrean 30 eta 22 galdu zuen asteartean Endikak.

ASTEARTEAN argi erakutsi zuen bere nagusitasuna Urri-zak Endikaren aurrean, Buruz Buruko Kutxabank Txapelketan; partidua nahieran dominatu, eta 30 eta 22 irabazita, Endikari ez zion puntu bakar bat ere lortzen utzi.

Horrela, Urriza aurreneko postuan dago 8 punturekin, eta Barrenetxea IV bigarren, 6rekin; finalerdietara pasatzea ziurtatu du. Endikak, berriz, 4 dauzka, eta Ansa Iik, bat ere ez. Larunbatean eta asteartean jokatu dira li-gaxkako azken partiduak.

Gaur, berriz, Buruz Buruko txapelketakorik ez, baina beste hiru partiduko jokatu dira Galarretan: Zubiri eta Zaldia buruz buru, Ezkurra II eta Azpiroz, Ansa II eta Ionen aurka, eta Juanenea-Etxeberria III, Endika-Larrañaga. ■

■ ASTIGARRAGA IRAILEKO AGENDA

Sagardoak zipriztinduko du herria, irailean

Sagar Uzta jaiaren hemeretzigarren edizioa izango da irailaren 26tik 29ra; eta larunbat horretan egingo dute Sagardo Txapelketa herrikoia finala, Ergobiako plazan.



Kirikoketan aritzeko aukera izango da, Sagar Uzta Jaian.

IKASTURTE hasiera izateaz gain, sagarraren hilabetea ere bada iraila, eta hori nabari da Astigarragako iraileko agendan.

Ohi bezala, AEK euskaltegiak aurreko ikasturtean ataratako argazkien erakusketak estreinatuko du agenda, astelehenean bertan. Herriko tabernetan ikusi ahal izango dituzte herritarrek, ostegunera bitarte.

Ikasturte hasierako gainontzeko jarduerak emango diote segida, ondoren.

Aiztondo abesbatzak entsegu irekia egingo du hilaren 6an, ikasturtea hasteko. Herri-tar oro gonbidatu dute probatzera.

Hurrengo egunean, hilaren 7an, gaztetxoek txanda izango da, irekiera jaia egingo baitu Gaztelekuak.

Sagarra eta sagardoak ere izango dute protagonismoa, hil honen bukaeran. Hilaren 26tik 29ra izango da Sagar

Uzta Jaiaren hemeretzigarren edizioa; eta zita berezia izango dute hilaren 28an ergobiarrak. Hain juxtu, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak antolatzen duen Sagardo Txapelketa Herrikoia finala izango da bertan. ■

■ HERNANI ERREPIDEAK

Osiñagan, lanak

Asfaltatze lanekin segita, Osiñagako bidea, Portu auzotik Loidi baserria itxita egongo da gaur eta bihar, eta irailaren 2, 3, 4, 9 eta 10ean. Aurreneko fasean Loidi eta Itsas-Buru arteko zatia itxiko da; herrira etortzeko, Eloorrabitik Ibarluze edo Epelen barrera joan beharko da. Bigarren zatian, Itsas-Burutik Portu arteko zatia itxiko da. Osiñagako auzo elkarteak adierazi du «lanak guztion onerako» izango direla. ■

■ HERNANI ERRUGBIA

Getxori aurre, etzi

Hernaniko mutilek Getxoren aurka jokatu dute etzi Faturan, Euro Basque Rugby Challenge-Euskal Ligako 3garren jardunaldia. G7 goi-bileraren eraginez ez da partidurik jokatu pasa den asteburuan, eta Getxorentzat aurrenekoa izango da. Hernanik, beriz, galdu egin zuen aurrekoa, 19 eta 33, Avironen kontra. ■

IRAILEKO AGENDA

2-5, Argazki erakusketak. AEK euskaltegiak 2018-2019 ikasturtean zehar herriko hainbat txokotan ataratako argazkiak herriko hainbat tabernetan egongo dira ikusgai: Ibai-Lur, Ikatza, Sagartxo, Txiki eta Zipotzan.

6, Abesbatzaren entsegu irekia, kultur etxean, iluntzeko 20:00etan. Astigarragako Aiztondo abesbatza ezagutzeko entsegu irekierara etor zaitezke. Aiztondo abesbatzako kide izateko aukera zabalik dago. Anima zaitez! Harremanetarako: aiztondoabesbatza@gmail.com edo 943 335 064 telefonoan.

7, Gaztelekuaren irekiera jaia. Gaztelekuak, arratsaldeko 17:00etan. Beterriko gazteen Parkour erakustaldia, jan eta edatekoak, musika eta bestelakoak. Euriarekin ikastolako atarian.

7, Astigarragako VI. 4x4 Triala. Zarkumendegi atzean, 16:00etan.

16-22, Europako Mugikortasun Astearekin bat irailaren 16tik 22ra

udaleko ingurumen sailak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Aurtengo lema *Ibili gurekin* izango da. Egitaraua: www.astigarraga.eus

20, Txu-txu tren. Pelotari kaleko autobus geltokian, arratsaldeko 17:00etatik iluntzeko 20:00etara. Merkataritza txikiaren aldeko sentsibilizazio kanpaina egingo da Beterri eta horren baitan txu-txu tren ibiliko da Astigarragako merkataritza eta ostalaritza gunean barrena. Antolatzailea: Astiko merkatarien elkarte.

21, Santio igoera herrikoia. Joseba Barandiaran plazatik Santiagomendiraino, arratsaldeko 18:00etan. Haurrak 16:00etan aterako dira plazaren inguruan ibiltzeko eta alebin eta infantilak Ipintzaraino igoko dira. Izen-ematea: kiroldegian eta Gerizpe okindegian eta egunean bertan Plazan. Helduek, 5 euro, eta haurrek, doan. Antolatzailea: Mundarro, Astigarragako txirrindularitza taldea eta Astigarragako Udala.

26-29, XIX. Sagar Uzta Jaia.

Sagardotegietako dolareetako lanen hasiera ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dira iraileko azken astean.

26, Arratsaldean, Sagar pintxopotea Astigarragako tabernetan sagarren eratorriekin egindako pintxoekin.

28, Goizean zehar familientzako jarduerak, besteak beste, sagar-bira, sagar motak ezagutzeko Santiagomendin zehar. Aurrez izena eman behar da.

29, Goizean, Sagarraren Jaia Foru Plazan: muztioa egitea, txalaparta, kirikoketa, sagar dantza, sagardo eta muztio dastaketa, etab. Eguerdian, herri bazkaria eta arratsaldean afizionatuen pilota partiduak.

29, Goizean Argazki Rallya Foru Plazan. Oinarriak: Sagardoaren lurraldearen web orrian.

Egitaraua eta izen-emateak: 943 550 575/www.sagardoarenlurraldea.eus.

28, Euskal Herriko V. Sagardo Txapelketa herrikoia finala.

Ergobiako plazan, 20:00etan. Afaria eta finalera iritsitako 12 sagardoak dastatu eta iritzia emateko txartelak salgai daude Gipuzkoako Sagardogileen elkartearen (www.sagardoa.eus), Ikatza, Txiki, Zipotza tabernetan edo Ergobiako elkartearen. Antolatzaileak: Gipuzkoako sagardogileen elkarte eta Danak Bat Ergobiako elkarte. Babeslea: Astigarragako Udala.

30, 2018-2019 ikasturteko udal diru-laguntzak eskatzeko epea irailaren 30ean bukatuko da: euskera ikasteko laguntzak, aisialdiko begirale eta zuzendari titulua euskeraz ateratzeko laguntzak, Udako unibertsitateko euskerazko eskoletarako laguntzak, garraiorako laguntzak (DBHko 2.zikloko ikastetxe publikoetako eta HHI-EPako ikasleentzat) eta haur eskolako familia ugari edo bi senideren matrikuletarako laguntzak.

30, KZ GUNEko koordinatzailea gaur egongo da 16:00etatik 17:45etara. Ikastaroen eskaintza ikusteko: www.kzgunea.eus. Informazioa eta izen-ematea: tutor.astigarraga@kzgunea.net

Hernaniko Udala

Ogasuneko zinegotzi delegatuak onartu du **dirulaguntzak ematea, 2018ko Hiri Izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko (OHZ) zerga ordaintzeko**, bizitegien jabe direnei ezarritako familiako irabaziak izanez gero (udalean galdetu), eta hainbat baldintza betez gero. Eskabideak aurkezteko epea aurtengo irailaren 2tik urriaren 31ra bitarte izango da (Sarrera erregistroan aurkeztu behar da eskatutako dokumentazioarekin batera). Epe hori luzeazina da.

EZ DUTE ESKAERA EGIN BEHAR, 2018ko Ur-homidura eta hondakin-biketa tasak ordaintzeko diru-laguntzak emateko eskoera aurkeztu duten gurtiek ofizio aplikatuko zaie ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Espedientea Udal honetako Errenta eta Exakziozko bulegoan egongo da ikusgai.

Hernani, 2019ko abuztuaren 26a Ogasuneko zinegotzi delegatua

Tripontzi jatetxea

PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KONBINATUAK
ARRAI FRESKOA

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

Hernaniko Udala

Ogasuneko zinegotzi delegatuak onartu ditu hondakin-biketa, uraren hornidura eta saneamendua zerbitzuaren **2019. urteko tasak ordaintzeko diru-laguntzen zenbatekoak**. Diru-laguntza horien onuradunak izango dira bizitegien jabe diren familiak, betiere hainbat baldintza betez gero. Eskabideak aurkezteko epea aurtengo irailaren 2tik urriaren 31a bitartekoa izango da. Eskabidea

Udaleko Sarrera Erregistroan aurkeztu beharko da eskatutako dokumentazioarekin batera. Epe hori luzeazina da. Espedientea Udal honetako Errenta eta Exakziozko bulegoan egongo da ikusgai.

Hernani, 2019ko abuztuaren 26a Ogasuneko zinegotzi delegatua
M Isabel Sánchez Pérez

GAUR Zerua nahiko estalita egongo da, baina ostarteak irekiko dira eguerdian. Arratsaldean eguzkitsua egongo da une batzuetan, baina gero lainotzera egingo du eta baliteke euria egitea. **Min.18° / Max.24°**

BIHAR Ez da aldaketa handirik egongo. Lainoak izango dira nagusi eta zaparradaren bat bota dezake. Arratsaldean, giro eguzkitsua nagusituko da. Temperaturaren aldaketarik ez. **Min.18° / Max.24°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI ARRAUNA

Sorpresa emateko prest gaur, 'Maialen' traineruko neskak

Arratsaldeko 17:30etan hasita izango da sailkatze-estropada Donostian eta bertan izango dira hernaniarrak. B taldean aterako dira.

IGANDEAN bukatu zuen ETE liga Hernaniko Arraun Elkartearen Maialen traineruak, eta Donostiako itsasoan murgilduko da gaurkoan.

Hain zuzen, datozen bi igandetan Kontxako Ikurriñaren bila ateratzeko sailkatze-estropada jokatu dute gaur, Kontxako badian zehar.

Horretarako, 1,5 miliako distantzian egin beharko dute arraun, eta ziaboga bakarra

1,5 miliako distantzian egin beharko dute arraun, ziaboga bakarrarekin.

egongo da.

Arratsaldeko 17.30etan daukate hitzordua, Donostian.

20 talde, gaurko estropadan Denera, 20 talde lehiatuko

dira datozen igandetan Kontxan egoteko; horietatik zazpi lortuko dute txartela.

Bi taldean aterako dira. A taldean: Deustu, Gu Arraun, Hibaika, Hondarribia, Isuntza, Kaiku, Orio, San Juan, Tolosaldea eta Zumaia. Eta B taldean, Cabo, Salgado Perillo, Club Do Mar de Burgos, Mecos, Colindros, Hernani, Lapurdi, Nautico de Riveira, Ondarroa, eta Tiran. II

HERNANI LATSUNBEBERRIKO JAIK

Latsunbeberriko jaiak, bihartik

Bihar emango zaie hasiera Latsunbeberriko jaiak, arratsaldeko 19:00etan, suzuria jaurtiz. Igandean amaituko dira festak, sagardo dastaketarekin.

BIHAR arratsaldean hasiko dira Latsunbeberriko festak, 19:00etan. Jarraian MUSTA perkusio tailerretan parte hartzeko aukera egongo da. Eta jaiak hasiera ezin hobea emateko, Zumba tailerra eskainiko du Rey Dominikanoak. Afal ordua iristean, sardinen jatea antolatu da eta gaua alaitzeko TDJS (Txingudi DeeJays) emanaldiaz gozatze-ko aukera egongo da.

Larunbatean eta igandean, jarraipena

Etzi, goizetik hasiko da eguna, 10:00etatik 12:00etara bitartean, betiko jokoak egongo dira, hala nola, zaku lasterketa, zapi jokia eta mahai futbola. Jarraian, marrazki lehiaketan parte hartu dutenek, beren lanak entregatu beharko dituzte, ondoren sariak egongo baitira. Esku pelota txapelketa ere ez da faltako, eta hau amaitzean, trikitilari eta buruhaundiak egongo dira auzoan zehar. Hauek bukatuta, umeentzako aparraren jaiak izango da, eguraldi ona



Metxari su emateko pronto daude Latsunbeberri-Marielutsen.

egiten badu. Eguerdiko 14:00etarako denak gosetuta egongo direnez, auzo bazkaria egongo da, triapak bapo betetzeko. Bazkari ostean, mus txapelketa. Arratsaldean dozenaka joko egongo dira, haien artean, ping pong, toka txapelketa eta beste hainbat. Gauean, DJ Mikeltxik musikaz girotuko du auzoa.

Igandean amaituko dira festak, baina egun osoan zehar, hamaika ekintza egongo dira, jaiak «agur» esateko.

Egun hauetan zehar, edariak, ogitartekoak eta pintxoak egongo dira txoznan.


Haien artean, tortila patata txapelketa. Eguna amaitzeko Sagardo dastaketa egin bitartean, suzuria botako da, jaiak amaitutzat emateko. Antolatuzaileek adierazi dute, egun osoan zehar, edariak, ogitartekoak eta pintxoak egongo direla txoznan. II

IRAGARKI MERKEAK


Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



MARIA ARÁNZAZU EZPONDA MUGICA



*Bizitzan zenbat pilotakada doazen txapa azpira...
Oraindik ez da iritsi, bada, kartoia hogeitabira
Burua altza ta begirada zuzenduaz harrobira
Lore ederrez inguratua Arantxa guban bizi da*

Astigarragan, 2019ko abuztuaren 29an

XXVIII. URTEURENA

JUAN MARI ORMAZABAL "Tturko"

Bilbon, 1991ko abuztuaren 29an, Euskal Herriaren askatasunaren alde borrokan, (Ez) zaintzaren eskutian hil da.



Zuk askatasuna maite zenuen bezala guk maite zaitugu zú! eta zure oroimenak indarra emanaz bidea argitzen digu

ETXEOAK

Hernani, 2019ko abuztuaren 29an

XXVIII. URTEURENA

JUAN MARI ORMAZABAL "Tturko"

Bilbon, 1991ko abuztuaren 29an, Euskal Herriaren askatasunaren alde borrokan, Ertzaintzaren eskutian hila.



Ahazten dugun hura hiltzen delako soilik beti gure bihotzean zaitugu bizirik.

HIRE OIARTZUNGO KOADRILA

Hernani, 2019ko abuztuaren 29an

ERREMONTA GALARRETAN

HERNANIARREK DESKONTU BEREZIAK

8€

ZARRERA



ERREMONTA BIZIRIK

ORIAMENDI 2010

galarreta